

BASAURIKO UDAL HILERRIAREN **ERREGELAMENDUA**

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Basauriko Udal Hilerria bera, Udalarena den Zerbitzu Publikoko Ondasun bezala, eta horren administrazioa, zainketa eta zuzendaritza Udal Gorporazioaren menpe geratzen da erabat, Erregelamendu honetan adierazten den terminoen arabera, hala ere ez die kalterik eragiten, botere judizialak eta bere kasuan osasunekoak dituzten ahalmenei.

2. Artikulua.- Udalari dagokio:

- a) Hilerriaren zainketa, garbiketa eta prestaketa.
- b) Partzela, ormaune eta hobien banaketa eta emakida.
- c) Ordenantza fiskalaren arabera egoki diren eskubide eta tasak eskuratzea, bai lursailak okupatzearen, bai obren lizentziagatik bai ehorzketa- -eskubideen emakidagatik.
- d) Zerbitzua egokiro eskaini ahal izateko beharrezko diren langileak izendatzea.

3. Artikulua.- Partikularrei dagozkie:

- a) Hilerrian ehorzketa duina izateko eskubidea, inolako bereizketarik gabe, arraza, erlijio edo aberriagatik.
- b) Ehozketa eskubideak eta bere erlijio edo ideologiaren araberrako erritoak aukeratu eta gozatzekoa, Erregelamendu honetako terminoen barruan.
- c) Egokitutako lur-partzela, ormaune, hobi etabarretan adieraziko den kontserbazio, apaindura eta estetika balidintzetan mantentzea.
- d) Ordeanantza fiskalean, zerbitzu desberdinak eskaintzeagatik, seinalatuko diren eskubideak eta tasak ordaintzea
- e) Hilan sanitate-poliziarako diktatuko den xedapen oro errespetatu eta betetzea.

f) Erregelamendu honen barnean ezarriko diren gainontzeko obligazioak betetzea.

4. Artikulua.- Hilerriaren kudeaketa administratiboa horretarako izendatuak izango diren funtzionarioek egingo dute, baina beti Osasun Arloko erantzule politikoaren zuzendaritzapean.

II. KAPITULUA

HILETA ESKUBIDEA

5. Artikulua.- Hileta-eskubidea, zeina gauzatzen den, ehorzketako hobi, ormaune, gorpuzkinen ormaune, hilobi edo panteoia erabili edo izatean, partikularrei emakidan laga zaiela ulertzen da, horietan gorpuak edo gorpuzkinak hobiratzeko bakarrik, eta ezin zaie beraz beste inolako erabilerarik eman, eta Udalak beretzat gordetzen du horien titularitatea.

6. Artikulua.- Hileta eskubidea emam eta hori hobeto identifikatzeko helburuz, hilerriko lurzoru baliagarria hurrengo era honetan banatuko da:

a) Lurreko hobiak partzeletan banatuko dira eta partzela bakoitza errenkadan banatuko da. Hobiak bestalde korrelatiboki zenbakituak joango dira.

b) Ormauneak blokeetan banatuak joango dira, horiek fatxada batekoak edo bikoak izango dira eta blokearen izen edo zenbaki bidez eta bloke bakoitzaren ordenako zenbaki bidez izango dira identifikatuak.

c) Panteoi-eraikinetako partzelak errenkadan jarriak egongo dira bakoitza bere zenbaki korrelatiboarekin.

d) Gorpuzkinentzako ormauneak, ohiko ormauneak baino txikiagoak, horiek bezalako banaketa izango dute.

7. Artikulua.- Hileta-eskubidea emateko ahalmena Basauriko Udaleko Alkate Udalburuari dagokio, edo bere ordezkari, Osasun Arloko arduradun politikoari.

8. Artikulua.- Hileta-eskubide baten iraungitzea deklaratu ahal izango da, eta horrela gertatu ezker,

emakida Udalari bihurtuko zaio, hori hurrengo kasu hauetan gertatuko da:

a) Aldi baterako eman diren hileta-eskubideak direnean, emakidaren epea edo horren gaineko edozein luzapen igaro delako.

b) Hilobien egoera hondatua egotearren. Aurri-egoera eta ondorioz eskubide horren iraungitzea deklaratu ahal izateko espediente administratiboa beharko da eta baita Alkatearen ekimena eta Gobernu Batzordearen erabakia ere. Espedienteak audientziako tramitera makurtu beharko du, ahal balitz behintzat, eta edozein modutara hilabeteko epean jendaurreko jarri beharko da, erabakia hartu aurretik.

c) Hileta-eskubidea ordenantza honetan erabakitakoaren aurka erabiltzen bada, aurreko atalean aurrikusitako izapideak egin ondoren.

III. KAPITULUA

HILOBIAK

9. Artikulua.- Hilerriaren banaketa honela geratuko da, hain zuzen ere, bere egunean hilerria eraiki eta geroagoko handitzeak egiteko onetsi zen Proiektuan ezarritako aurrikuspenen arabera.

- a) Ormauneak eta gorpuzkinentzako ormauneak (hezurtokiak)
- b) Hobiak
- c) Panteoiak

1. Atala.- Ormaune eta hezurtokiak

10. Artikulua.- Eraikiko diren ormaune eta hezurtokiak osasun-arauen arabera eta indarrean dagoen Hilan Sanitate Poliziaren Erregelamenduan adierazitako neurrien arabera egin beharko dira.

11. Artikulua.- 1.- Eraikitako ormauneeen gaineko hileta-eskubidea hurrengo emakida-motaren batekoa izan daiteke:

- a) Aldi bateko emakida, hamabost urteko epealdiarekin.
- b) Aldi bateko emakida, larogeita hemeretzi urteko epealdiarekin.

Udalak, udalbatzaren erabakiz, momentuko beharren arabera zehaztuko du jarraitu beharreko sistema.

2.- Hezurtoki edo gorpuzkinentzako ormauneeen gaineko hileta-eskubidearen emakida berrogeita hamar urteko epealdirako izango da.

3.- Bi kasuetan, hileta-eskubidea lortu ahal izateko, ordenantza fiskalak kasu bakoitzerako adierazten duen ordainketa egin beharko da.

12. Artikulua.- 1.- Ormauneko egonaldiak ehorzketaren datatik hasiko dira kontatzen. Arrazoi pertsonalengatik hileta-eskubidea duen titularrak bigarren ehorzketa bat egin nahiko balu ormaune berean, egin ahal izango du baldin eta bost urte edo gehiago faltako balira emakidaren epemugara arte.

Bigarren ehorzketa emakidaren azken 5 urteko epealdian gertatuko balitz, lagapenari dagozkion tasak ordaindu beharko dira, eta data horretatik aurrera, emakidaren epe berri bat irekiko da, eta epe hori 11. Artikuluko 1. a) atalean aurrikusitako iraupeneko izango da.

2.- Ordenantza honetan zehaztutako denbora igarotzearen, erabileraren emakida amaitzen denean, emakidaren titularra gorpuzkinen kargu egingo da, eta horrela ez balitz egingo, udalak egindako jakinarazpenetik hasita, gutxienez hamabost egun igaro direnean, gorpuzkinak guztiena den hezurtégian utziko ditu eta horiei ez zaie norenak diren jakiteko markarik jarriko errekupeatu ahal izateko, eta geroan erraustu egingo dira.

3.- Ezarritako emakidaren denbora indarrean egonik, baldin eta titularrak hildakoaren gorpuzkinak beste hilerri batetara eramatea erabakiko balu, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren eta Udalaren baimena izanik, ez dio inolako diru itzulketako eskubiderik emango emakidaren epea amaitzeko falta den denborak eta beraz Udalak ez du inolako obligaziorik horren aurrean.

4.- Larogeita hemeretzi urteko emakidak direnean, baldin eta aurreko 3. paragrafoan aurrikusitakoaz gain, titularrak udalaren esku jarriko balu hileta-eskubidea, emakidaren gainontzekoari eta gozpuzkinen erabilerari uko eginez, kasu horretan eskubidea izango du, emakida amaitu bitartean falta zaizkion urte osoen kopuruaren araberrako indemnizazioa jasotzeko, eta larogeita hemeretzi urteko epaldiari dagokion indemnizazioa 60.000,- pezetakoa dela jotzen da. Aipatu indemnizazioa Alkatearen Dekretu bidez zehaztuko da, atal honetan dagoen arau proportzionala aplikatu ondoren.

13. Artikulua.- Gorpuzkinen ormauneetan familia bereko gorpuzkinak utzi ahal izango dira, baina baldin eta titularrekin laugarren gradura bitarteko ahaidetasuna badago.

Aplikagarri izango zaizkie 11. artikuluko 3. ataleko xedapen fiskalak hala nola aurreko artikuluko 2. eta 3. ataletako guztia. Baita aplikagarri izango da 20. artikulua.

14. Artikulua.- Ormaune edo hezurtokien gaineko hileta-eskubidea hurrengo hauen izenean bakarrik erregistratu ahal izango da:

- a) Pertsona norbanakoaren edo haren oinordekoen izenean.
- b) Bizirik d irauen ezkontidea.
- c) Komunitate erlijiosoak edo asistentziako edo ospitaleko establezimenduak, horrela ezagutuak badaude Administrazioaren aldetik, eta bere kide eta horietan babestu eta jasotakoen erabilera eskusiborako.
- d) Gorporazioak, fundazioak eta legalki eratutako entitateak, bere kide edo enplegatuen erabilera eskusiborako.

2.- Datu pertsonalen sekretua babesten duen legeriari jarraiki, Udalak ez du inolako informaziorik emango panteoi, ormaune edo hilobi zehatzetan ehortzirik dauden pertsonen buruz, baldin eta ez bada hileta-eskubidea duenari edo haren oinordekoei.

2. Atala.- Hilobiak

15. Artikulua.- Fabrika-obrairik behar ez duen lurreko hobiaren hileta-eskubidea hamabost urteko epealdirako lagako da, epe hori agortutakoan gorpuzkinak lurpetik aterako dira, hurrengo artikuluan aurikusitako terminoen arabera.

16. Artikulua.- Lurreko hobian ehortzi zenetik hamagost urte igarotzen direnean, gorpuzkinak lurretik aterako dira eta guztiena den hezurtokian utziko dira eta ez dute inolako tasarik edo eskubiderik sortuko.

Aurreko atalean xedatutakoaz gain, lagapenaren titularrak eskatzen duenean, lurretik ateratako gorpuzkinak horientzako ormaunera eraman eta han utziko dira, aurretik hala ere, ordenantza fiskalean adierazitako tasak ordaindu beharko dira.

3. Atala.- Panteoiak

17. Artikulua.- Panteoiak eraikitzeke lursail-partzelen gaineko hileta-eskubidea emango da, baldin eta horretara destinatutako partzela libreka badaude, epealdia gehienez larogeita hemeretzi urtekoa izango da, eta Udalak epealdi hori murriztu ahal izango du egoki baleritzo.

Emakidaren epea igarotakoan, hileta-eskubidea iraungia geratuko da eta Udalak beretzat hartuko du eginga dagoen eraikina, eta horren titularrak ez du inolako indemnitzazio eskubiderik izango. Kasu horretan, eta baldin eta bost urte igaro badira ehorzketa egin zenetik, gorpuzkinak atera egingo dira aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera.

Baldin eta ez badira bost urte igaro azken ehorzketa egin zenetik, emakida luzatua izan dela ulertuko da indarrean dagoen Arau legalaren arabera aipatu epea bete arte.

Gorporazioak bestalde, udalbatzaren erabaki bidez, panteoien emakida luzatu ahal izango du, baina hori behin bakarrik egin ahal izango du eta gehienez hasierako emakidaren epe bererako. Luzapen hori egin ahal izango da bakarrik, legalki panteoiaren titular gisa pertsonen bat legokeen kasuan, 14. artikuluan eskatzen denaren arabera, hau da, panteoi hori Udalak jarritako irizpideen araberrako baldintza teknikoetan mantendu dadila eta panteoietak partzelen lagapenetrako ezarrita dauden tasak ordaindu ondoren.

18. Artikulua.- Panteoiak eraikitzeke lana hileta-eskubidea duen titularraren kontura eta kargura izango da. Ondorio horietarako titularitatea duen horrek dagokion proiektua aurkeztuko du obraren lizentzia lortzeke helburuz.

Obren lizentzia ematekoan aipatu panteoi horien edukiera zehaztuko da, horrela jakingo baita zenbait ehorzketa egin daitezkeen, horrek eukiko dituen apal kopuruen arabera. Halaber, obren hasierako eta amaierako epea adieraziko da. Hasiera eta amaierako aipatu edozein epe igarotakoan, lizentziak eta hileta-eskubideak balioa galduko dute, eta partzela Udalari bihurtuko zaio egindako eraikin guztiekin eta indemnitzatzeko inolako eskubiderik gabe.

Modu berean, panteoiaren edozein aldaketa estetiko edo egiturazkoa edo panteoi horren edozein elementu garrantzitsu kendu ahal izateko, aurretik baimena eskatu beharko zaio Udalari.

IV. KAPITULUA

EHORZKETAK, LURRETIK ATERATZEAK ETA LEKUALDAKETAK

19. Artikulua.- Gorpuen edo gorpuzkinen ehorzketak, lurretik ateratzeak eta lekualdaketak indarrean dagoen Hilen Sanitate Poliziaren Erregelamenduko arau espezifikoei jarraiki egin beharko dira.

20. Artikulua.- 1.- Ezingo da Basauriko hilerrian ehortzi, heriotzaren aurretik, gutxienez hiru hilabete lehenagotik Basauriko Udalerrian erroldatua ez legokeen pertsonaren gorpua, edo heriotza udalerrri horretan gertatu ez bada.

2.- Udalak, dagokion ehorzketa baimendu aurretik, egoki leritzon dokumentazioa guztia eskatzeko eskubidea izango du, hain zuzen ere aurretik adierazi diren ingurumari horiek ematen diren egiaztatu ahal izateko.

Edozein modutara ere, ormaune, hilobi edo panteoi zehatz batetan ehortziko da, hileta-eskubidea duen titular gisa azaltzen den pertsonak horretarako baimen egokia ematen duenean.

Hala eta guztiz, hileta-eskubidearen titular gisa azaltzen den pertsona hilda dagoenean, hain zuzen ere hitzegiten ari garen hileta-eskubidearen lagepena duena, eta nahiz eta besterentzea arauak agintzen duten bezala egin gabe egon, baldin eta ehorzketa bat egin beharko balitz, nahikoa izango da, titular gisa azaltzen zen edozein ahaidek horretarako baimena idatziz adieraztea, nahiz eta kasu horretan erantzunkizun guztia bere gain hartuko lukeen modu eskusiboan, horrek halaber, bere nortasuna eta ahaidetasuna justifikatu beharko du.

3.- Lehen atalean jasotako debekutik salbuetsiak geratzen dira hurrengo ehorzketak, bai familien panteoietan egiten direnak, larogeita hemeretzi urterako lagatako ormauneetakoak eta Hilan Sanitate Poliziaren Erregelamenduko hamairugarren artikuluan aipatzen diren kasuak.

4.- Alkateak halaber, edo Osasun eta Kontsumo Arloko ordezkari politikoak, artikuluko honetako 1. atalean agertzen den debekua altxa dezakete Dekretu bidez, baldin eta arrazoi humanitario eta sentimenduzkoengatik hileta- -eskubide baten titularitatea duenak berari dagokion ormaune edo hilobian hartu nahiko balu gorpu bat, hori jadanik ehortzita dauden edozeinen ahaide bada, laugarren gradurainokoa.

Halaber Alkateak edo Osasun eta Kontsumo Arloko arduradun politikoak, interes publikoko arrazoiak daudelako, artikuluko honetako 1. atalean dauden debekuak altxa ditzakete beste aparteko kasuetan.

V. KAPITULUA

HILETA ESKUBIDEA BESTERENTZEA

21. Artikulua.- 1.- Hileta-eskubidea, edozein delarik ere horren edukia eta horren epeari dagokion iraupena, besterendua izan daiteke "inter vivos" edo "mortis causa"

dohaintza bidez, baldin eta famili artean egiten bada eta laugarren graduko ahaidetasun barruan eta dagokion tasa ordaindu ondoren.

2.- Laurogeita hemeretzi urterako lagatako ormaune edo familiako panteoien gaineko hileta-eskubideak, laugarren gradura bitarteko ahaideen artean besterenduak izan daitezke, horretarako dagokion tasa ordaindu ondoren, nahiz eta besterenduko zaion pertsona udalerrian ez bizi.

3.- Kasu batean zein bestean, oinordekoak bere izaera hori egiaztatu egin beharko du, legislazio zibilak baimentzen duen edozein instrumentu erabiliz, horrek arautzen baitu herentziatzko oinordetza bai testamentuduna bai testamendu gabekoa, eta kasu bakoitzean dagokion moduan egiaztatuko du.

Esandako eran ez balitz egiaztatuko, Udalak, aitorpen zinpetuaren bidez, hori adieraziko lukeena har dezake oinordeko gisa, eta hileta-eskubidearen titular gisa hartuko du, baldin eta interesaturen batek ez badu behintzat aurkako probarik aurkezten eta hirugarren baten eskubideen kalterik gabe.

VI. KAPITULUA

LEGEHAUSTE ETA ZEHAPENAK

22. Artikulua.- Guztiz debekatua dago hilerriko edozein tokitan ezein material edo objekturik uztea, aurretik udalak ez baldin badu baimena eman, baimen hori bestalde izan daiteke zehatza edo generikoa.

Udalak erabakiko du ormauneak isteko sistema eta era, horrela egokia den berdintasuna mantentzain.

23. Artikulua.- Alkateak agindua emango du hamar eguneko epean erretira daitezela baimendu gabeko elementu eta objektuak, eta agindu hori beteko ez litzatekeen kasuan udalak erretiratuko lituzke bainan leghaustea egingo luketeen gain kargatuko luke.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo.- Ordenantza honetan aurrikusi gabeen, Hilan Sanitate Poliziaren Erregelamenduan xedatutakora eta indarrean dagoen gainerako arauetara makurtu beharko da.

Bigarren.- Ordenantza hau indarrean sartuko da, behin betirako onetsi ondoren "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" osorik argitaratuko den eguneko biharamunean.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1.- Erregelamendu honen aldaketa behin betirako onetsi zen egunean, hori 1996ko azaroaren 4an izan zen, zortzi urteko eperako ormaune eta hilobien emakidaren gainean hileta-eskubideen titularitatea zutenek, beren eskubidea hamabost urtera arte luza dezakete, baina horretarako, beren borondatea azaldu behar dute Zuzenbidean onartua den edozein bidetik, eta borondate hori aldaketa hau onetsi denetik hasi eta indarrean dagoen lagapenaren epea amaitu bitartean azal dezakete.

2.- Erregelamendu honen aipatu aldaketa behin-betirako onetsi zen egunean, gorpuzkinentzako hezurtegi edo ormauneeen gainean hileta-eskubideen titularitate zutenek, beren eskubidea, berrogeita hamar urtera luza dezakete, aurreko atalean adierazitako prozedura bera erabiliz eta epe berean.

3.- Xedapen iragankor honetan aurrikusi bezala hileta-eskubideak luzatu egingo balira, luzapeneko epealdi horrengatik Udal Hilerriko zerbitzuari legokion tasa ordainduko da.

4.- Erregelamendu honetako xedapenekin bat ez datozen hileta-eskubideen besterenganatzeak erregularizatzeko xedez, kasu berezi bezala eta behingoz, hileta-eskubidearen erosleak Udalari eskatu ahal izango dio bere titularitatearen arrazoia har diezaiola.

AMAIERAKO XEDAPENA

Testu honek indarra izango du, behin legeen arabera onetsia izan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denean, eta gai hori bera erregulatzen duten udal xedapenak ordezkatzeko ditu, zeinak indargabetuak geratzeko diren.